



# EGAPE IKASTOLA BHI

## KONTINGENTZIA PLANA

### 2020-2021

#### SARRERA

#### OSASUN NEURRIAK

- Prebentzio-neurri orokorrak:
- Segurtasun distantzia
- Sarrera eta irteerak:
- Espazioak.
- Instalazioak eta ekipoak garbitzea
- Hondakinen kudeaketa
- Neurri osagarriak
- Eskolan norbaitek Covid-19rekin bateragarriak diren sintomak baditu:

#### IRAKAS-IKASKUNTZA PROGRAMAK ETA CURRICULUMA

#### IKASTETXEAK COVID-19 AREN AURREAN JARDUTEKO ESTRATEGIAK (IUPan jasota)

- Agertokiak
  1. agertokia
  2. agertokia
  3. agertokia

#### IKASTETXEETAN COVID-19 KASUAK AGERTZEN DIRENERAKO JARDUNBIDEAK

- Kudeaketa ikastetxean
- Kasuen kudeaketa

Hiru agertoki posible har daitezke kontuan:

- Agerraldi kontrolatuak edo noizbehinkako kasuak.
- Agerraldi konplexuak edo noizbehinkako komunitate-transmisioa.
- Kontrolik gabeko transmisio komunitarioa.



## SARRERA

Komunitatean kutsatzeko arriskua minimizatzeko zuzendaritzak prebentzio-neurri espezifiko nahikoak bermatuko ditu COVID 19 pandemia-egoeran ohiko lana egiteko, Osasun Sailaren jarraibideei jarraituz eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren aholkularitzarekin.

Zuzendaritza-taldea arduratuko da ikastetxean COVID 19 patologiarekin lotuta ager daitezkeen kasu guztien berri emateaz Hezkuntza Saileko Prebentzio Zerbituari: [prebentziohezkuntza@euskadi.eus](mailto:prebentziohezkuntza@euskadi.eus).

Gainera, [eskola-osasuna.donostialdeasakidetza.eus](http://eskola-osasuna.donostialdeasakidetza.eus) korreoaren bitartez informazioa helaraziko zaio osakidetzako Covid 19 erreferenteari eta hauen esku jarriko duen behar duten informazioa eman eta hauen jarraibideak jarraitzeko.

Zuzendaritzak osatutako plana OOGko kideen oneritzia jaso du eta indarrean egongo da plana abian jartzea eragin duten inguruabarrak aldatu edota amaitu arte. Bestetik dokumentua etengabe eguneratzen ari gara errealitate berri honetan sortzen diren egoerei erantzuna emateko.

## OSASUN NEURRIAK

### Prebentzio-neurri orokorrak:

Prebentzioak neurri kolektiboak erabiltzea lehenesten du, banakako babesaren aldean; ahalik eta pertsona gutxien esposiziopean eta, ahal bada, esposizio-denbora murriztuz.

1. Eutsi arnas etiketari.
2. Doministiku egin, edo kutsatutako gainazalak ukitu ondoren, eskuak garbitzeko higiena edo hidrogela erabili.
3. Paperezko zapiak erabili eta zakarrontzi itxietara bota.
4. Saihestu begiak, ahoa eta sudurra ukitzea.
5. Mantendu 1,5 m-ko distantzia ahal duzunean.
6. Saihestu beste pertsona batzuen ekipoak eta gailuak partekatzea.
7. Utzi garbi lan-eremua, garbiketa errazteko.
8. Instalazioen garbiketa.

Beharrezkoa den jarduera guztietan, arriskuaren aurrean segurtasun-maila handituko da banakako neurrien bidez; pertsonen eskura jarriko dira: gel hidroalkoholikoa eta maskarak.

### Segurtasun distantzia

Pertsonen arteko harremanek 1,5 m-ko distantzia mantentzea eskatzen bada ere gure eraikinaren baldintzak direla eta ezinezkoa gertatzen da, beraz maskarak erabiliko ditugu uneoro.

### Sarrera eta irteerak:



- Ikastetxera sartzeko bi ate daude. 1.zikloko ikasleak **“sarrera 1”** parke aldeko atletik sartuko dira eta bigarren ziklokoak **“sarrera 2”** futbol zelaiko atletik sartuko dira pertsonen pilaketa sahieste aldera. Era berean jokatu da ere irteeretan.
- Bedelak eta zuzendaritzak sarbidea kontrolatuko dute eta ikasleei jakinaraziko die segurtasun-distantzia mantendu behar dutela ikastetxean. **Sarreretan**, zuzendaritzako kideak, **tenperatura hartu eta ikasleek musukoak** dituztela ziurtatuko dute segurtasun neurriak betez. Ikasleak ilaran sartuko dira eta **distantzia** mantenduko dute.
- Goizean, 8:10etatik aurrera irekiko da eskola eta baita gelak ere. Honela, ikasleak iritsi ahala tenperatura hartu eta geletara joango dira patioan pilaketa saihesteko.
- Ikasleak banaka joango dira komunetara.
- Sarrera eta geletako **ateak irekita** mantenduko dira, eskuekin kontakturik ez izateko.
- Geletako sarreretan dagoen **gelarekin eskuak garbitu** behar dira.
- Ikastetxera datorren irakasleak ardura hartuko du musukoa jartzeko eta eskuak garbitzeko. Era berean, distantzia soziala mantentzen saiatuko dira.
- Bestelako pertsonak ere, bai langile, hornitzaile edota familiak segurtasun neurriak mantenduko dituzte. Familiak eskolara etortzeko hitzordua eskatuko dute.

### Espazioak.

- Geletan ikasleek eta irakasleek musukoak erabiliko dituzte.
- **Patioak eta jolas-orduetan** ere maskarak erabiliko dira.

Patioa bi eremutan banatuko da: **“eremu 1”** futbol zelaia eta **“eremu 2”** beste erdia aterpearekin. 1. eta 2. zikloko ikasleek txandaka erabiliko dituzte eremuak, astero aldatuz. Jangela garaian ere, honela jokatu da.

Eguraldia txarra denean, antolaketa berezia bideratuko da. Jolasgaraian frontoia erabiltzeko aukera eskatu zaio udalari. Beraz, egoera honetan, 3. eta 4. mailako ikasleak frontoira joango dira jolasgaraian, 1. mailako ikasleak gimnasioan egongo dira eta 2. mailakoak patioan aterpea erabiliko dute.

- **Pasabideetan, pasiloan, eskaileretan segurtasun distantzia mantentzeko eskatuko da.**
- Beharrezkoak diren desplazamenduak soilik egingo dira. Horregatik ikasleek ez dira gelaz gela ibiliko eta talde bakoitzak erreferentziatzko bere **gela** izango du, gure ohiko antolaketa aldatuz.

1A - GIZARTE GELA	1B - MATEMATIKA GELA
2A - MUSIKA GELA	2B - LABORATEGIA
3A - EUSKARA 2 GELA	3B - GAZTE 2 GELA
4A - INGELESA 2 GELA	4B - MATEMATIKA 2 GELA

- Hainbat arlo lantzeko **gela espezifikoak** erabiliko dira: informatika, teknologia, plastika eta musika.  
Gazte1 gelan musika arloa landuko da eta Ingelera1 gelan HIPI laguntzak, zaintzak eta bidelaguna.
- **Eskolaz kanpoko** jarduerak :



Eskola  
Jasangarria  
Ziurtagiria



KALITATEA  
HEZKUNTZAN



ETIKETA  
DIGITALA



-Idazkera digitala on-line egingo da ikasle kopurua dela eta ezin direlako segurtasun neurriak modu egokian bermatu informatika gelan.

-Gitarra: Gaztelania1 gelan.

-Marrazketa artistikoa: Plastika gelan.

-Antzerki Tailerra: gimnasioan

*\*Jarduerak eskolako instalazioetan ematen direnez kontingentzia plan honetan adierazten diren neurriak jakinaraziko zaie jarduerak zuzentzen dituzten espezialistei errespetatu ditzaten.*

- **Komunean** pertsonak pilatzea sahiestuko da. Komunak okupatuta badaude kanpoan itxoen geratuko gara distantziak mantenduz. Komunitate irten baino lehen, eskuak garbituko dira. 1. eta 2. mailako ikasleek eraikin zaharreko komunak erabiliko dituzte eta 3. eta 4. mailakoek eraikin nagusikoak.
- **Aldageletan** distantzia errespetatu beharko da; beraz, behar den kasuetan, txandak antolatuko ditugu. Bertan ordena eta garbitasuna mantendu behar dira.
- **Jangelan** bi txanda egingo dira, beharren arabera. Eta lehen aipatu bezala ikasleek eremu jakin bat erabiliko dute. Jangelan, aurretik aipatutako segurtasun neurri guztiak beteko dira (eskuak garbitzea, aireztatzea, musukoak eseri bitartean...). Jangelako protokoloa sortu da eta bertako langileekin partekatuko da.
- **Irakasle gelan** irakasle bakoitzak bere espazio egonkorra izango du lanerako eta musukoa erabiliko da. Irakasle bakoitzak bere chromebooka izango du ikasturte osorako eta irakasle gelako portatilen armairuko ordenagailu bat izango du soilik berak erabiltzeko.
- 2020-21 ikasturtean **ez ditugu takilak erabiliko** ikasleen mugikortasuna sahiesteko. Ikasleek bere mahaiak jasoko dituzte material propioak (estutxea, koadernoak...) eta **motxila egunero etxera eraman beharko da.**

### Instalazioak eta ekipoak garbitzea

- Garbiketa zehatza erabilitako espazioetan egingo da egunero.
- Maiz ukitzen diren gainazalak eta komuna egunero desinfektatuko dira.
- Instalazioetan aldian-aldian aireztatze-lanak egingo dira, gutxienez egunero, eta, ahal dela, lanaldian hainbat aldiz.
- Irakasle gelan klimatizazio-sistema dagoenez, aire-iragazkien garbiketa indartuko da.
- Gela eta material guztien garbiketa indartuko da (leioak, ateen heldulekuak, etengailuak, barandak, mahaiak, ordenagailuak, saguak, telefonoak eta inprimagailuak).
- Lan egiteko tresnak eta materialak partekatzea saihestuko da. Ikasle eta irakasle bakoitzak bere ordenagailua eta material propioak erabiliko ditu eta materialak partekatzen badira ondoren garbitu beharko dira.
- Egunero azken orduan ikasleek bere mahaiak desinfektatu behar dute eta aulkia mahai gainera igo. Gela guztietan irakasle mahai gainean gela horretako ordutegia itsatsita dago. Partekatzen diren geletan (musika, frantsesa...) orduoro desinfektatu beharko dira.
- Ikasle bakoitzak **Chromebooka egunero etxera eraman eta ikastolara ekartzeko ardura hartu behar du.** Covid-19 dela eta prebentzio neurri bezala ez dira eskolako armairutan utziko.



Eskola  
Jasangarria  
Ziurtagiria



KALITATEA  
HEZKUNTZAN



ETIKETA  
KALITATEA



## Hondakinen kudeaketa

- Hondakin arrunten kudeaketa egoera berria dela eta moldatu egin da, ikasle guztien ardurapean zegoena ingurumen batzordearen esku utziko da mugikortasuna sahiesteko eta higiene neurriak errazago mantentzeko. Beti ere, hondakinak bereizteko protokoloak errespetatuko dira.
- Bi eraikineko sarreretan pedala duen ontzian botako dira erabilitako musukoak, mukizapiak...
- Paperontzi poltsaratuak jarriko dira hondakinak biltzeko ontzietan.

## Neurri osagarriak

Ikastetxean **informazio-kartelak** ipiniko dira.

## Eskolan norbaitek Covid-19rekin bateragarriak diren sintomak baditu:

Bere egoeraren berri emango dio zuzendaritzari.

1. Ikastetxea utzi eta etxera joango da. Ikaslea bada familiari deituko zaio ohiko prozedura jarraituz.
2. Zuzendaritza-taldea arduratuko da ikasle zein irakaslearen jarraipena egiteko eta gaixotasunaren inguruko informazioa jaso bezain laister Hezkuntza Saileko prebentzio-zerbitzuari gorabehera guztien eta Covid 19 kasuaren berri emateko. Era berean, kasu bakoitzean ikastetxean izan ahal diren kontaktuen berri emateaz ere arduratuko da.
3. Gurasoek edo legezko tutoreek eskola-agintariei eta osasun-agintariei ohartarazi behar diete etxean norbait COVID-19rekin diagnostikatu badute, eta seme edo alaba etxean eduki behar dute.

## IRAKAS-IKASKUNTZA PROGRAMAK ETA CURRICULUMA

### IKASTETXEAK COVID-19 REN AURREAN JARDUTEKO ESTRATEGIAK (IUPan jasota)

2020-2021 ikasturterako Protokolo orokor honen helburua antolaketaren ikuspegitik jarduteko jarraibide orokorrak ezartzea da, hasierako edozein eszenatokiri eta gertaeren bilakaeraren mende egon litezkeen balizko eszenatoki-aldaketei behar bezala erantzuteko, betiere pertsonen segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatuz.

## Agertokiak

Dokumentu honek jarduketa-esparru bat zehazten du sor litezkeen jokaleku ezberdinei aurre egin ahal izateko.

### 1. agertokia: aurrez aurreko eskola.

Aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera modu normalizatuan garatzea. Ikasturtea irailean hasiko da, aurrez aurre, maila guztietan eta hezkuntza-jardueran kontingentzia planean jasotako segurtasun eta osasun-prebentzio neurriei eutsiko zaie.

### 2. agertokia:



Eskola  
Jasangarria  
Ziurtagiria



KALITATEA  
HEZKUNTZAN



ETIKETA  
KALITATEA



Ikastetxeak irakaskuntza-jarduera malgutasunez antolatzen behartuko gaituena, aurrez aurreko jarduerak aurretik identifikatutako ikasleekin ("Ikasle ahulak") eta jarduerak telematikoak besteekin.

### 3. agertokia:

#### Eskola osoa konfinatuta.

- Eskola ordutegia jarraia izango da. 8:30etatik 14:00ra bitarte.
- Asteko plangintza ikasleekin partekatuko da driveko "unitate partekatuak" bitartez astelehenero.
- Saio bakoitzaren hasieran irakasleak bideokonferentzia bidez klaseari hasiera emango dio ikasleekin komunikatzeko eta egin beharreko lana aurkezteko.
- Ikasleen hutsegiteak Inikan erregistratuko dira.
- Ikasleen jarraipena egiteko eta tutoreak informazioa eguneratuta izateko Inika aplikazioa erabiliko dugu.
- Astero arlo bakoitzeko irakasleak ikasleek egindako jarduerak, ekoizpen... bat baloratuko du.
- Ebaluazioa ohiko moduan egingo da.
- Irakasleen koordinazioa bideokonferentziaz egingo da.
- Familiekin harremanetan jarriko gara korreoaz (gmaila, Inika...), telefonoz edota bideokonferentziaz ikasleen jarraipena egiteko.

#### Gela bat edo gehiago konfinatuta.

Aurreko agertokiaren irizpideak mantenduko dira baina ordutegia ez da jarraia izango. Irakasleak gela horrekin edota horiekin klasea duenean eskolatik telelana egingo du aurretik adostutako jarraibideekin.

#### Ikasle batzuk konfinatuta.

Ikasleak etxean konfinatuta dauden bitartean tutoreek driveko unitate partekatuko lan plangintza partekatuko dute ikasleekin. Bertan, irakasleek, eskolara datozen gelakideek egin behar dituzten jarduerak berberak idatziko dituzte taulan ikasle hauek etxetik lana egin dezaten.

Egoera honetan ez da bideokonferentziarik egingo.

## IKASTETXEETAN COVID-19 KASUAK AGERTZEN DIRENERAKO JARDUNBIDEAK

### Kudeaketa ikastetxean

1. Egape BHIIn zuzendaritzaz gain Juan Ulacia atezaina izango da erreferentziazko arduraduna COVID-19rekin lotutako gaietarako. Kasuen kudeaketan, Osasun Publikoa eta ikastetxearen arteko koordinazioa burutuko da. Era berean, elkarriketa arina ezartzen saiatuko gara ikastetxearen eta hezkuntza-administrazioaren artean, egoeren berri emateko, zalantzak argitzeko eta jarduerak koordinatzeko.

Covid arduraduna: [juanulacia@egape.eus](mailto:juanulacia@egape.eus)

Zuzendaria: [amaia@egape.eus](mailto:amaia@egape.eus)

Bestalde, jarraipen batzordea osatuko da krisialdi egoeratan.

Ikastetxeko zuzendaria	AMAIA AMUTXASTEGI	<a href="mailto:amaia@egape.eus">amaia@egape.eus</a>	685722017
Segurtasun laguntzailea	JUAN ULACIA	<a href="mailto:juanulacia@egape.eus">juanulacia@egape.eus</a>	943899425



Eskola  
Jasangarria  
Ziurtagiria



KALITATEA  
HEZKUNTZAN



ETIKETA  
KALITATEA



aita edo ama bat, edo OOGko iraunkorreko kide ordezkari bat	ANA HOLGADO	<a href="mailto:anaholgado76@gmail.com">anaholgado76@gmail.com</a>	649495033
Berritzeguneko erreferentziazko pertsona	OLATZ GOITIA	<a href="mailto:olatzgoitia@berrilasarte.eus">olatzgoitia@berrilasarte.eus</a>	627231253
ikastetxeko ikuskatzailea.	MARTA IRAZOKI	<a href="mailto:huisq152@euskadi.eus">huisq152@euskadi.eus</a>	942022913

2. Kasuren bat gertatuz gero, kontaktuen miaketa azkar eta errazagoa egin ahal izateko, eta era horretan azterketa eta jarduketa errazteko, ikastetxean honako informazio hau jasoko dugu:

- Talde bakoitzeko ikasleen zerrenda.
- Gela, tailer edo laborategi bakoitzeko ikasleen zerrenda, bakoitzaren kokalekua (non esertzen diren) eta hauen harremanetarako telefono zenbakiak (mugikorra), azkar jardun ahal izateko, bai eta kasu bat agertzean kontaktu estuak lortzea errazten duen informazio guztia ere.
- Jantokiko txandako ikasleen zerrenda, eta kokalekua ezagutzea (non esertzen diren), ikasleak beti leku berean kokatzeko ahalegina eginez.
- Autobus berean garraiatuak izan diren ikasleen zerrenda, eta zein eserlekutan jartzen diren.
- Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen badira, taldeetan dauden ikasleen zerrenda Informazio hori kudeatzeko, eta kasu bat agertzen denean kontaktuak ahalik eta lasterren aztertzeke.

3. Erakunde Sanitario Integratu (ESI) bakoitzak erreferentziazko herrietako ikastetxeen laguntza-beharrak koordinatuko ditu. Beraz, ikastetxe bakoitzak erreferentziazko ESI bat du, eta Osasun Publikoak koordinatutako harremana izango dugu harekin. Ikastetxe bakoitzari harremanetarako telefono zenbaki bat esleituko zaio.

Ikastetxe batean kasuak baieztatzen badira, ikastetxeko zuzendaritza zaintza sarearekin harremanetan jarriko da. Aipatutako ESiko koordinatzaile batek ezarriko du sare hori, eta hark adieraziko dio zer jarraibide jarraitu behar dituen.

## Kasuen kudeaketa

**1. Ez dute ikastetxera joan behar COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak,** ikasle, irakasle zein bestelako langileak izan, ez eta COVID19ren diagnostikoa jaso ondoren isolatuta daudenek edo etxeko berrogeialdian daudenek ere, COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituen pertsona batekin harreman estua izateagatik.

## 2. Ikastetxean sintomatologia agertuz gero:

- Horretarako prestatutako isolamendu-gelara (zaintza gelara) joango dira (maskara jarrita). Sarreran tenperatura altua eman badu, ohiko termometroarekin berriro ere tenperatura hartuko zaio. Gela honek higie eta aireztapen neurri egokiak beteko ditu, eta kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da. **IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI** jakinaraziko zaio, eta hark Prebentzio Zerbitzuko **ARLO MEDIKOARI JAKINARAZIKO** dio (**Gloria San Prieto, tfnoa: 943 02 31 72**).
- Ikaslea bada, berarekin doan pertsonak neurriak gordeko ditu: distantzia eta maskara.
- Ikastetxeko zuzendaritza edo ikastetxean Covid 19ren prebentzioaren ardura duen pertsona familiarekin harremanetan jarriko da, etxera eramateko.
- Familia bere osasun zentroarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko.
- Hezkuntza Sailaren menpeko langilea bada, isolamenduan jarriko da (maskara jantzita) eta etxera joango da **IKASTETXEKO ZUZENDARITZARI** jakinarazi ondoren; zuzendaritzak Lan Arriskuen



Eskola  
Jasangarria  
Ziurtagiria



KALITATEA  
HEZKUNTZAN



ETIKETA  
OSASUN  
KONTRASTE



Prebentziorako Zerbitzuko ARLO MEDIKOARI JAKINARAZIKO dio (**Gloria San Prieto, tfnoa: 943 02 31 72**).

- Beste enpresa bateko edo Administrazio Orokorreko langilea bada, ikastetxeko zuzendaritzari, dagokion Prebentzio Zerbitzuari eta Hezkuntza Sailekoari jakinaraziko die, eta haren jarraibideak beteko dira.
- Eragindako pertsona kasu susmagarritzat joko da, eta etxean isolatuta egon beharko du proba diagnostikoen emaitzak izan arte.
- Kasuaren emaitza diagnostikoa lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, higie-neurriak zorrotz. Kasua berresten bada, kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza-ingurunean eta hezkuntza-ingurunetik kanpo, kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez.

### 3. Kasuak baieztatuz gero:

Kasu positibo gisa detektatutako ikaslearen familiek berehala jakinaraziko diote ikastetxeko zuzendaritzari, erreferentziako ESI-arekin harremanetan jar dadin, eta azken hau lurraldeko Osasun Publikoko Zuzendariordeztako erreferentearekin harremanetan jarriko da.

**Egape Ikastolako ESI erreferentea: Miren Elisabet Barandiaran Bengoechea**

[MIRENELISABET.BARANDIARANBENGOECHEA@osakidetza.eus](mailto:MIRENELISABET.BARANDIARANBENGOECHEA@osakidetza.eus)

**943 00 64 18 / 616 98 77 14**

Kasua baieztatzen bada, kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza-ingurunean eta handik kanpo, kontaktuak identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez.

- Baieztatutako kasua talde egonkor batekoa bada, harreman estuzat hartuko dira taldeko kide diren pertsona guztiak.
- Konfirmatutako kasua ez bada talde egonkor batekoa, ikastetxeko harreman estuzat identifikatuko dira, ikastetxeko Zuzendaritzarekin eta Prebentzio Zerbitzuko koordinatzailearekin lankidetzan.

Osasun Publikoko Zerbitzuak, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin batera, balioetsiko du ea irakasleak eta ikastetxeko langileak kasu baieztatuen kontaktu estuzat hartu behar diren, hartutako prebentzio-neurrien eta egindako jardueren egokitasunean eta jarraipenean oinarrituta.

Osasun-agintariek jarraipen aktiboa egingo dute estuzat identifikatutako kontaktuen artean, eta etxean egon beharko dute berrogeialdian. PCR probak egitea barne hartuko da.

Gurasoei informazio-oharrak prestatuko zaizkie, eta familiei informazio egokia emango zaie berrogeialdiko, eskuen higieneko eta arnas higieneko neurriak betetzeko, bai eta COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak garaiz identifikatzeko seinaleak ere.

Kontaktuak aztertu eta estuzat jotzen direnentzako berrogeialdiko neurriak ezarri ondoren, irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko dute, arreta-neurriak zorrotz eta zaintza pasiboa eginez.

Beste kasuren bat balego beste gela batean, kasuak erlazionatuta egon daitezken edo ez aztertuko da, eta detektatutako kasuen kontaktu estuen azterketaren arabera zehaztuko dira neurriak.

Eskola-aldian, COVID-19 kasuak detektatuko dira ikastetxe batera joaten diren haurren artean. Horrek ez du esan nahi, nahitaez, kutsatzea ikastetxean gertatu denik. Horretarako, eskolaz kanpoko ingurunea sartuko da analisisian, ikastetxeko kontaktu estuzat ikertzeko beharraz gain.





#### 4. Kasu bat baino gehiago agertuz gero

Agerraldizat hartuko da lotura epidemiologiko bat ezarri den infekzio aktiboko 3 kasu edo gehiagoren multzokatzea.

Ikastetxeetan COVID-19 kasuen agerpen-egoerak askotarikoak izan daitezke. Agertzen diren kasuak talde egonkor edo ikasgela bakar batean identifika daitezke, talde horretan edo gelan transmisiorik izan gabe. Kasu desberdinen arteko lotura dagoenean, agerraldizat har daiteke.

Era berean, agerraldi bat antzeman daiteke ikasgela batean baino gehiagotan, haien artean loturarik egon gabe eta gertaera independenteak izanik.

Azkenik, ikastetxean bertan taldeen arteko transmisio-agerraldiak gerta daitezke.

#### Hiru agertoki posible har daitezke kontuan:

- **Agerraldi kontrolatuak edo noizbehinkako kasuak.**  
Transmisio-kateak ondo definituta badaude. Egoera hau talde bakar batean gerta daiteke, edo, aldi berean, independenteak diren talde egonkor batzuetan. Horietako bakoitzerako kontrol-jarduera espezifikoak adieraziko dira, ohiko kontrol neurriak ezarriz: kasuen isolamendua eta talde edo gela independente bakoitzeko kontaktuen identifikazioa eta berrogeialdia.
- **Agerraldi konplexuak edo noizbehinkako komunitate-transmisioa.**  
Transmisio-kateak erraz identifikatu ezin badira edo adar bat baino gehiago agertzen badira, kasu bat baino gehiagoren sorrerarekin. Egoera hori hainbat talde edo ikasgelatan hautemandako kasuen ondorio da, talde batetik bestera nolabaiteko transmisio-maila dutenak, birusa ikastetxean sartzeko modua edozein izanik ere. Kasu horretan, kasuen arteko lotura aztertuko da, eta neurri gehigarriak hartzea baloratuko da, hala nola berrogeialdia gorde behar duen taldea/taldeak handitzea, gelak edo lerroak ixtea.
- **Kontrolik gabeko transmisio komunitarioa.**  
Ikastetxean kontrolatu gabeko transmisioa gertatzen dela uste bada, kasu kopuru altua agertuta. Osasun Publikoko Zerbitzuak arrisku-ebaluazio bat egingo du, transmisio prozesuak non gertatzen diren aztertuz, eta, azken buruan, zentroko eremu bat (adibidez, jantokia) edo ikastetxe osoa aldi baterako ixtea baloratuko du.